

MAHUKA LUZEAK

Imajina ezazue gizon bat Madrileko autobus geltokian –Madrileko autobus geltokian madrildar gutxi ikusten da–. Hogeita hamar urte inguru ditu eta Gasteizkoa da.

Ia berrogei gradura daude, mahuka luzedun kamiseta darama soinean eta, golkotik zintzilik, amonak jaunartze egunean oparitutako gurutzea.

Ez du autobusik hartu behar, bisitan joan zaion arreba agurtzera joan baita. Behin batean autobus hori batean iritsi zen karrera luze bat egiteko asmoz; hiru urtez aritu zen lehen mailatik pasatzeko ahaleaginean, bere benetako ametsak maletatik atera gabe.

Irribarrez egiten dio agur Continental Auto horiari; agian behin bera ekarri zuen berberari, baina hori ez du berak pentsatu. Hortzak falta zaizkio. Ez gehiegi oraindik. Eta zainak. Agur egiten dio, autobusari, mozorrotutako besoaz. Arreba engainatzea lortu du berriro ere; inuzente xamarra da zenbait kontutan. Agur hau Madrilera itzulera bat da, bere Madrilera, bakardadera, hain urrun geratzen da bere arreba, mezetarako bezala

jantzita, hain arraroa da ikustea agian bera ekarri zuen autobus berean.

Etxera heldu bezain pronto hots egin dio arrebak amari. «Berdin jarraitzen du. Badakizu, besoak estalita, esaten dituen gauza horiek esaten. Gero eta gutxiago ulertzen zaio. Ezagutu ere ez zenuke egingo agian. Lagunen baten pisuan eduki nau, komuna non zegoen ere ez zekien; berea zela esan dit. Imajinatu. Ez dakit zer egin dezakegun ama».

Bi malko irten dira, bi begietatik, etxe banatan, masaila batean behera. Istorioa hasi baizik ez da egin, oso motza da hala ere, eta oso ezaguna.